BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4358

AGINDUA, 2011ko uztailaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Andoaingo (Gipuzkoa) «La Salle-Berrozpe» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Hezkuntza Bereziko unitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Andoaingo (Gipuzkoa) «La Salle-Berrozpe» Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren erakunde titularraren ordezkariak abiarazi duen espedientea aztertu da; Hezkuntza Bereziko unitate bat gehitzeko eskatzen du espedientean.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Arau hauek izan dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzkoa (9ko BOE); 1998ko uztailaren 30eko Agindua, beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteari buruzkoa (abuztuaren 31ko EHAA), eta gai horretan aplikagarri diren gainerako legeak. Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Honen jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari 2011-2012 ikasturtetik aurrera Hezkuntza Berezian unitateak gehitzeko baimena ematen zaio:

Kode zenbakia: 20000201

Izen espezifikoa: «La Salle-Berrozpe».

Titularra: Legarra Etxebeste Fundazioa.

Helbidea: La Salle etorbidea, 5

Udalerria: Andoain

Lurralde historikoa: Gipuzkoa.

Baimena: Hezkuntza Bereziko unitate 1 gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

– Haur Hezkuntzako 1. zikloan: 4 unitate, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; unitate bakoitza, 18 ikaspostuko edukierakoa.

– Haur Hezkuntzako 2. zikloan: 9 unitate, 223 ikaspostutarako edukiera.

– Lehen Hezkuntza: 18 unitate, 450 ikaspostutarako edukiera.

– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12 unitate, 360 ikaspostutarako edukiera.

– Hezkuntza Berezia: 3 unitate.

– Batxilergoan: Modalitateak: «Zientziak eta Teknologiak» eta «Humanitateak eta Gizarte Zientziak»; edukiera: 8 unitate eta 280 ikaspostu.

– Lanbide-Heziketa:

● Familia: Administrazioa.

○ Administrazio eta finantzetako goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Elektrizitatea eta Elektronika.

○ Produktu elektronikoen garapeneko goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Fabrikazio mekanikoa:

○ Soldadura eta galdaragintzako erdi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

○ Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioko goi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: 2 ziklo.

○ Fabrikazio mekanikoko diseinuan goi-mailako prestakuntza zikloa. Edukiera: ziklo 1.

● Familia: Produkzioko mantentze-lanak eta zerbitzuak:

○ Makineria eta linea-eroanbideen instalazio eta mantentze elektromekanikoko erdi-mailako prestakuntza-zikloa. Edukiera: ziklo 1.

2. artikulua.– Indarrean dauden legeak betetzera beharturik gelditzen da ikastetxea agindu honen bidez baimendutako unitateko irakasleen ikasketa-titulazioari dagokionez. Bestela, emandako baimena baliogabetuta geratuko da.

3. artikulua.– Ikastetxeak Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du (martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua), bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan dagoen baimen-emate honek ez dauka bere baitan, inola ere, hezkuntza-itunen araubidearen bitartezko laguntzak lortzea.

Bigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 21a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.